

2022-2025 Plan Estrategikoa

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea

Xedea

Osasun-erakunde publiko bat gara, Bizkaian osasun mentaleko arreta espezializatua eskaintzen duena, eredu komunitarioan oinarritua. Pertsonen errekupeazioari begira lan egiten dugu, beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan.

Ikuspegia

Erreferentziazko erakunde bat izan nahi dugu osasun mentalaren arretan,

- bikaintasunera eta eraginkortasunera bideratutako arreta eskainiz,
- erabiltzaileen eta haien hurbilekoen parte-hartzearekin,
- profesional aditu eta konprometituekin,
- herriarrek eta instituzioek balioetsi eta aintzatetsiekin.

Balioak



Profesionaltasuna



Hurbiltasuna



Proaktibitatea



1. Erronka: Asistentzia-eredu komunitarioa

Pertsonak artatzea beren ingurunerik hurbilenean.




5. Erronka: Ikerketa eta berrikuntza

Ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak bultzatzea, erakundeak bere zereginak hobeto burutu, eta pertsonen osasuna hobetzeko.



2. Erronka: Pertsonengan oinarritutako arreta eta osasun-emaitzak

Pertsonak eta haien laguntza-sareak erabakitzen parte har dezaten lortzea asistentzia-prozesuan, eta haien iritzia, ikuspegia eta esperientzia txertatzea BOMSeko antolaketan. Praktika asistentzialaren eragina eta haren osasun-emaitzak neurtzea.



4. Erronka: Kudeaketa aurreratua eta jasagarria

Bultzatzea baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra, arretaren eraginkortasuna eta emaitzen hobekuntza, betiere gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituta.



3. Erronka: Profesionalak

Profesionalen egungo eta etorkizuneko beharrak planifikatzea eta kudeatzea, eta horrekin batera, indartzea euren prestakuntza, konpromisoa, lidergo partekatua eta talde-lanaren eta diziplinartekoaren kultura.


Osasun-erakunde publiko bat gara, Bizkaian osasun mentaleko arreta espezializatua eskaintzen duena, eredu komunitarioan oinarritua. Pertsonen errekupeazioari begira lan egiten dugu, beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan.

Erreferentziazko erakunde bat izan nahi dugu osasun mentalaren arretan,

- bikaintasunera eta eraginkortasunera bideratutako arreta eskainiz,
- erabiltzaileen eta haien hurbilekoen parte-hartzearekin,
- profesional aditu eta konprometituekin,
- herritarrek eta instituzioek balioetsi eta aintzatetsiekin.



GURE BALIOAK



Profesionaltasuna

Pertsonekin elkarlanean aritzen gara, zintzotasunez eta zorroztasunez, eta erakundearekin konprometituta gaude.



Hurbiltasuna

Aktiboki eta enpatiaz entzuten diegu pertsonei, haien lehentasunak eta itxaropenak aintzat hartzen.



Proaktibitatea

Jardunbiderik onenak txertatzen ditugu gure lanean, ideia berriak proposatzen ditugu eta irtenbideak bilatzen dizkiegu beharrei.

1. ERRONKA: ASISTENTZIA-EREDU KOMUNITARIOA

Pertsonak artatzea beren ingurunerik hurbilenean.

1. **Asistentzia-eskaintza eta zerbitzu-zorroat** egokitu.
 - a. **Adikzioen eredua** berrikusi, eta substantziarik gabeko adikzio berriak txertatu.
 - b. **Suizidioa prebenitzeko** tresnak eta estrategia hedatu.
 - c. **Psikogeriatría-planaren** hedapena finkatu eta bermatu.
 - d. **Psikoterapiako zerbitzu-zorro** bat ezarri.
 - e. **Osasun mentaleko erizainaren** profila sartu **haurrak eta nerabeak** artatzeko lantaldeetan.
 - f. **Eskaera berrien azterketa** planifikatu **haur eta nerabeen arretan**.
 - g. Haur eta nerabeen arretaren **gogobetetasuna** neurtu.
 - h. **Adimen-desgaitasuna duten pertsonen egoitzetan** ematen dugun arreta finkatu.
 - i. **Osasun mentaleko Aholku Batzordearen** jarraibideak garatu.
2. Osasun mentalean **zaugarriak diren pertsonen estratifikazioan eta identifikazioan** aurrera egin.
3. Hobetu **zaintzen irisgarritasuna, segurtasuna eta jarraitutasuna**.
4. **Instituzioen arteko eta sektoreen arteko koordinazioa** sustatu, inplikaturako eragileen arteko topaguneak bultzatuz.
 - a. Arreta soziosanitarioa eta osasun mentaleko lantalde soziosanitarioak hedatzen jarraitu.
 - b. Koordinazioan aurrera egin, bat etorrita Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Osasun Sailaren arteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak ezarritako lehentasunekin.



2. ERRONKA: PERTSONENGAN OINARRITUTAKO ARRETA ETA OSASUN-EMAITZAK

Pertsonak eta haien laguntza-sareak erabakietan parte har dezaten lortzea asistentzia-prozesuan, eta haien iritzia, ikuspegia eta esperientzia txertatzea BOMSeko antolaketan.

Praktika asistentzialaren eragina eta haren osasun-emaizak neurtzea.




1. Osasun mentala **sustatu eta prebenitu**.
2. Aurrera egin **errekuperazio-ereduan**.
 - a. Areagotu pertsonen parte-hartzea euren Banakako Arreta Planean (**BAP**/PAI): bai plana bera prestatzen, bai horren jarraipena egiten eta ebaluatzen.
 - b. Pertsonak lana bila dezatela indartu, lan-munduan txertatzeko.
 - c. Pertsonen gaitasun digitalak bultzatu, osasun-karpetara eta webgunera sartzeko.
3. Aurrera egin **humanizazio-ereduan**.
4. **Pertsonen eta euren hurbilekoen esperientzia txertatu**, hobetu eta berriro diseinatzeko erakundearen prozesuak, programak eta zerbitzuak: TIEP proiektuan aurrera egin, Lehenak proiektua garatu, eguneko ospitaleen proiektuan aurreratu,...
5. Aurrera egin **balioetan oinarritutako medikuntzan**, asistentziaren praktika bideratuz osasun-emaizak hobeak lortzera, aintzat hartuta pertsonarentzat garrantzitsuak diren gauzak.

3. ERRONKA: PROFESIONALAK

Profesionalen egungo eta etorkizuneko beharrak planifikatzea eta kudeatzea, eta horrekin batera, indartzea euren prestakuntza, konpromisoa, lidergo partekatua eta talde-lanaren eta diziplinartekoaren kultura.

1. **Plantilla, profilak eta profesionalen sailkapena** dimentsionatu.
2. **Barne-komunikazioa** hobetu eta egokitu.
3. **Berdintasunean eta genero-ikuspegian** aurrera egin.
4. **III. Euskara Plana** garatu.
5. Erakundeko **pertsonak fidelizatu, aintzatetsi eta zaindu**.
6. **Lan-ingurune seguruak** garatu.
7. **Haurren psikiatria** espezialitatea akreditatu.
8. Handitu **BAME, BAPE eta BAEEn irakaskuntzaren akreditazioa**.
9. **Etengabeko prestakuntza-plana** bermatu, premia berriak barnean hartuta.



4. ERRONKA

KUDEAKETA AURRERATUA ETA JASANGARRIA

Bultzatzea baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra, arretaren eraginkortasuna eta emaitzen hobekuntza, betiere gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituta.

1. **Kontabilitate analitikoa garatu**, paziente-kostu analisiaren bidez.
2. **Kanpo-komunikazioan** aurrera egin, BOMSeko irudi korporatiboa zabaltzeko eta hobetzeko.
3. **Gizartearekin dugun konpromisoa** indartu.
 - a. Gure gizarte-konpromisoari lotutako jarduerak planifikatu.
 - b. Erakundeak gizartean duen eragina neurtu.
4. **Ingurumenarekin** dugun **konpromisoa** bultzatu.
5. **Garapen Jasangarriko Helburuak** txertatu erakundearen kudeaketan.
6. **Zibersegurtasun-plan bat** ezarri.
7. **Instalazioak, azpiegiturak eta ekipamenduak** hobetu. 2022-2025 inbertsio-plana idatzi eta gauzatu
 - a. Ospitaleko ekipamenduak eta arlo komunitarioko zentro berriak hobetu eta sortu (Zallako OMZ, Barrualdeko HN-OMZ, etab.).
 - b. Telefono bidezko irisgarritasuna hobetu, teknologia erabiliz.
 - c. Energia berriztagarriak pixkanaka ezarri: CO2 murriztu eta karbono-aztarna minimizatu.



5. ERRONKA: IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

Ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak bultzatzea, erakundeak bere zereginak hobeto burutu, eta pertsonen osasuna hobetzeko.

1. **Berrikuntza kudeatzeko prozesua** ezarri.
2. Erakundearen **ikerketa- eta berrikuntza-kultura** hobetu.
3. **Idea berritzaileak jasotzeko bideak** hobetu, kanalak eta egiturak indartuz erakundean.
4. **Berrikuntza Batzordea** sortu, estrategiarekin bat datozen proiektu berritzaileak identifikatu, lehenetsi eta hautatzeko.
5. Diseinatu eta abian jarri **zaintza teknologikoko eta adimen lehiakorreko prozesua**, gure aliatuak diren beste osasun-erakunde batzuekin lankidetzan.
6. **Partaidetza eta baterako sorkuntza** sustatu erabiltzaileekin eta haien hurbilekoekin.
7. **Baterako sorkuntza irekia** sustatu, lankidetzaren areagotuz unibertsitateekin eta enpresekin, proiektu berritzaileak garatze aldera.
8. Barneko eta kanpoko **sinergiak sortu**, gure ikerketa eta berrikuntza-gaitasuna areagotzeko.
9. Indartu **jardunbide egoki berritzaileen eta ezagutzaren zabalkundea**.
10. Jarraitu **Biocruces Bizkaia-ko ikerketa-talde finkatu bikaina** izaten.
11. **“Nursing Research Challenge”** proiektua hedatu.
12. **Ebidentzian oinarritutako praktikan** aurrera egin.

